

Zein da neska, zein mutila?

ZuZeue | 2009ko Maiatzak 22 @ 10:04 | 181 aldiz irakurria

Albistea irakurtzen hasi baino lehen, ondo begiratu bi aurpegiak eta erabaki ezazu: zein da neska, zein mutila?



Seguru asko, ezkerrekoa iruditu zaizu neska, eta eskuinekoa mutila. Geuri ere bai, baina oker gabilta denok, aurpegi bera baita bi argazkietan. Areago, argazkia ere bat eta bakarra da.

Ezkerrekoak kontraste handiago eta eskuinekoak gutxiago, horixe da dena. Maskulinitatea eta feminitatea, azken finean, argi kontua da, edo izan daiteke, bederen.

Horixe frogatu nahian aurkeztu ditu argazkiok Richard Russell izeneko psikologoak, Harvard unibertsitatekoak, [Urteko Ilusio Optiko Onena](#) lehiaketara, eta hirugarren saria eman diote.

TEKNO,

Partekatu: 

Bidalketa hau [lagun bati gomendatu](#) edo [inprimatu](#) dezakezu.

Iruzkinak

 [Bidalketa honen iruzkinen RSS jarria](#)



Rafa

“Bada, nik esango nuke aitortzen dena baino alde handiagoa dagoela bi irudien artean. Esaterako, ezkerreko irudiak begi-ingurua ilunduta dauka, makilatuta balego bezala, eta eskuinekoak, berriz, bekainak dagokiona baino ilunagoak ditu. Beraz, edo ez da kontraste-kontu hutsa, edo ez da manipulazio guztia azaldu testuan.

Horrek, dena dela, ez dio apurrik ere kentzen eragin didan harridurari!



Maiatzaren 25 @ 11:14

Trackback

[Bidalketa honi trackback egiteko URI helbidea](#)

Zure iritzia eman

Zure izena:

Zure e-posta:

egileari buruz



ZuZeue

ZuZeuko **Begiralea** 2009-05-02 egunetik.

Webgunea: www.zuzeu.com

ZuZeuko erredakzioa eta editoreak gara. Sarrera batzuk egin eta katramila hau guztia kudeatzeko asmoa daukagu, baina, seguru asko, ez dugu lortuko: gutxi eta txarrak gara. Horregatik itzuli gara ohitura zaharrera, otoitzera, eta bidean gurutzatzen zaizkigun saildu guztiei kandelak jartzera.

bidalketak

- **Politikari eta ospetsu frantziarrak, Rue89ren alde**
- **Stieg Larsson-en laugarren eleberria eskuratu dute hacker batzuek**
- **Democity**
- **Zigarreta-mutxikinak arropa bihurturik**

estekak

- **Hondarribitik Mutrikuraino, ispazterretik oinez** El Diario Vasco
- **Hegazkin bat desagertu da 231 bidaiarirekin** El Pais
- **Ibarretxeren gobernua aurtengo aurrekontuen %70 gastatu hiru hilabetetan** ABC
- **Javier Bauluz: kazetariak behar dute euren ofizioa kontrolatu** ABC

iruzkinak

Garapen Iraunkorra ala Oreka...



Sarrera honekin sintonian dagoen liburu bat argitaratu da...

Maiatzaren 26 @ 21:11

Jon Anza kasuak zalantza eragite...



bideoa



Kubako bertsolariak

sarrera berriak

Air France konpainiako hegazkin bat desagertu da 228 bidaiarirekin
Gaur 18:21 · ZuZeue · 0 iruzkin

Gidabaimena euskaraz
Gaur 17:58 · ZuZeue · 0 iruzkin

Estatu Batuetako berriak
Gaur 17:43 · ZuZeue · 0 iruzkin

Kazetari bila gabiltza
Gaur 09:51 · ZuZeue · 0 iruzkin

Eusko Alkartasuna, requiescat... in pace?
Gaur 08:00 · Hasier Etxeberria · 0 iruzkin

Identitateaz, nazioaz, euskaraz...
Atzo 17:20 · Oier Aranzabal · 0 iruzkin

[GUZTIAK IKUSI](#) ➔



ZuZeue sare sozialetan
jarraitu, eztabaidatu, parte hartu



ikusienak

- **Zuzeue-ren zuzeneko prentsaurrea**
2009-05-28 @ ZuZeue
- **Gonzalez Txabarrik 'Berria'ri eta 'Hitza'ri betoa jartzen die**
2009-04-23 @ Nagore Vega
- **Ikusgarria: San Mameseko festa, 360 gradutan**
2009-05-15 @ ZuZeue
- **Patxi Lopezek, euskal idazleak ahotan**